









Monsieur Héguyagaray, prêtre
à Hasparren (Basses-Pyrénées).





CANTICA
IZPIRITUALAC.

Cantica hauc eguin ahalaz bere aire çaharren gainean eman behar litaske ez baita oraico aire berrietan ederragoric. Eta hortacotzat, behar dute cantuaz occupatcen diren presunec beren artean hautatu buruzagui bat, edo bertcenaz serora bat, serorac diren herrietan, eta guero harren erranetic juan guciec, harc decidadzen duellaric cer cantica eman, eta noiz has eta noiz gueldi. Horiec guciac herrico artçaniaren laudamenarekin. Guiconc sclaruetaric ez lukete desarrimatu behar nescatchen cantua, baicic ere, erredoblamendua duten cantiketan, eman bere phartea chuchen, guciec boz batean eta oihu handieguiric eguin gabe. Guisa hortan içanen dire cantica hauc gucientzat edificagarri.



BAYONAN,
ANDRE LAMAIGNERE, ALHARGUNAREN IMPRIMERIAN,
CHEGARAYCO CARRICAN, 39 NUMEROAN.

M - 10025
R - 4420

CANTICA

IZPIRITUALAC,


LEHEN EÇAGUTUEI HAINITZAC IRATCHITKIAC,
ARTHA ETA OHARTZAPENEEKIN CANTATUZ,
YAINCOA ETA GURE SALBAMENDUA GANACO ORHOITZA-
PENEAN HAGUITZ LAGUNDUCO GAITUZTENAC.

Psallite Domino..... quoniam rex omnis
terræ Deus, psallite sapienter.

*Canta çaque Yaunaren ohoretan... bairan
ceren den mundu guciaren erreguea, canta-
çaque debocionerekin.*


LEHEN PARTEA.

CANTICA ÇAHARRAC.



SALTZEN DA BAYONAN,
CLUZEAU, liburu eta paper marchantaren baitan,
CILHARGUIN CARRICAN, 12 NUMEROAN.

—
1868.




ABISUA.



IMPRIMATU ičan dire, noizetic noizera, ezcuarazco Canticac : halaric ere urrunda baitciren erraiteco gucien guericean. Hetaric cembeit bethi hux berekin aguertzen ciren bertze ceimbeit arrimuric gabe eta moldegaizki ciren emanac. Ahal dire oraino bacotch batzu hobeki diotenac çor bere sortzea chede laudagarri bati ecen ez berxuac edocein gosturekin moldatzeco donuari, edo artha çorrotzari.

Orai arguitarat emaiten diren Canticac, ala çahar erre-berrituac, nola egundaino imprimatu gabeac, ez dire (ikhu-sia da) perfeccione osoan. Lan aski gaitza eta idorra çaio hautaz ocupaturic heldu denari bertzeren obren chuchent-zea. Hain nahico ere çuen berac, berri berritan, guciac moldatu; ordean, edireten tu, Cantica çaharren artean, cembeit bakhar hainitz ongui emanac, eta hekien moldatzai-lei ohore eguiten diotenac; baçαιο oraino hetaric bertze cembeit, bederen erdi ongui dohazkela, aphurbat correitu-ric. Damuric beraz utzico çirela Cantica çahar guehienac balxatu gabe berriekin. Diren guciac canta beitez alegueraki gure herrietan. Bedi gure Yainco handia laudatua, bihotzez eta errepicaz, bazter gucietan.





AMANDA HONORABLEA.



MAYESTATE adoragarria, ceruaren eta lurraren Creatzaile eta Yabe soberanoa, guizonen eta Aingueruen Erregue eta Monarca guciz puchanta; huna non naicen criminel bat beçala, çure contra eguin ditudan nombre gabeco bekhatuez misericordia humilki galdeguiteco, eta bereciki amodiozco Sacramendu huntan eguin dauzkitçudan afruntu handiez, damuric minenarekin barkhamendu escatzeco.

Bai, ene Yauna eta Yaincoa, bihotza dut urrikiric minenaz çaurthua; ceren çu, ô ontasun soberanoa, hain anxicabeki ahantzi, eta hain ingratki ofenxatu çaitudan. Ahantzçatçu, ô Salbatzaile amulxua, ene crima eta hoben guciac; orhoit çaitte, othoi çure misericordia handiaz eta çure tormenta guciez. Ez naçaçula puni çure coleran ene bekhatuen arabera; bainan trata naçaçu çure samurtusun mugarrigabearen arabera : urricai bekiçu, Yesus dibinoa, çure odolpreciatuaren gostuz erosi duçun ene arima.

Humilki aithortzen dut, ô Yainco handia, ez naicela gai, ene baitharic, eguin dauzkitçudan ofenxa handien erreparatzeco; ordean çure Seme, Olibetaco baratzean humiliatuaren amoreac gatic, barkha dietzadatçu ene hoben guciac; ez deçaçula arbuia ene bihotz dolorez çaurthuaz bethico eguiten dautçudan sacrificio osoa. Hitz emaiten darotçut, Yauna,

bicitze berri batez erreparatuco ditudala ene bici pasatuco falta guciac ; eta orai artean ofenxatu çaitudan beçala, hemendic aitzina, çure graciarekin batean, çu bakharric maitatuco, ohoratuco eta cerbitzatuco çaitudala. Ez deçaçula, othoi, permeti behinere ahantz, edo bistatic gal deçadan egun, guçonen eta Aingueruen presentzian, çure aldareen oinetan, emaiten darotçudan aguintza handia. Halabiz.



CANTICA IZPIRITUALAC.

I CANTICA.

Izpiritu Sainduaren laguntzac galdetzeco.

ÇATO, Izpiritua,
Creatzaile Saindua,
Bisita çatçu hotzac,
Othoi, gure bihotzac.

Bethe çatçu graciaez,
Cerutic egorriez,
Gure adimenduac
Ceronec formatuac.

Conxolatzaile ona
Icendatzen çarena,
Dohain baliosena
Yaun cerucearena.

Ithurburu bicia,
Amodio garbia,
Caritate kharxua,
Gantzucari saindua.

Çuc çazpi suerteac
Ëmaiten berthuteac;
Çu çare erhi sendoa
Yaunaren escucoa.

Noizbait çure arguiac
Inoranten mihiac
Bethe cituen hitzez,
Guciz miragarriez.

Detzan argui gureac,
Arin gogo tristeac;
Bai çure su borthitzac
Susta gure bihotzac.

Gure gorphutzecoac
Detzan indar flacoac
Borthitz çure graciae,
Bethi sendagarriac.

Egorraçu gurea
Urrun exai dorphea;
Emaguçu bakea,
Dohain guciz maitea.

Gutaric batbedera
Guida çaçu onera;
Çurekin ezdeçagun,
Othoi, gaitzie eçagun

Sinhex deçagun Aita,
Seme guciz puchanta,
Eta Izpiritua
Biez produitua.

Çure arguiz deçagun,
Othoi, ongui eçagun
Yainco eguiazcoa
Bethi laudatzecoa.

Bethi laudorioac
Tuen Aita Yaincoac,
Seme, hilic phiztuac,
Izpiritu sainduac.

O! Yauna, fidelenac
Çuc arguitu barneac
Tutçu, lehen, dohainez
Izpirituarenez.

Hartaz beraz gu ere
Gaitçatçu bethiere
Argui çure eguiez,
Bai conxola graziez.

Egor açu saindua,
Othoi, Izpiritua,
Eta mundu gucia
Eguinen da berria.

II CANTICA.

Laguntza beren-galdea. Aire berean.

ÇATO, Izpiritua,
Çato gu laguntzera;
Othoi, çato, yauxçaite
Gure bihotzetara.

Yauna, bethe gaitçatçu
Egun çure dohainez,
Eta gaitçatçu susta
Çure khar bicienez.

Conxolatzaile goço,
Descanxu emailea,
Çu çaitugu penetan
Gure laguntzailea.

Çu çare, bethidanic,
Amodioa bera,
Osoki ekharria
Gu gucien aldera.

O! cembat flakecia
Datzan gure barnetan
Bici gare, ondicoz,
Bekhatuzco gathetan.

Egor dieçaguçu
Çure arraioetarie,
Eta gare ilkhico
Gure ilhumbetarie.

Cembat ere baigare
Itzuliac gaizkira,
Çure graciaç gaitu
Erakhartzen onguira.

Urrun çaçu guganic
Gure exai gaichtoa,
Bethi gure arimen
Galtzerat hari dena.

Bai, Yauna, urrun çaçu
Sathan, exai dorphea;
Emaguçu bakea,
Ontasun hain maitea.

Aitarekin Semea
Dela bethi laudatu,
Izpiritu Saindua
Biekin ohoratu.

Içan beite hirurac
Gutaz eçagutuac,

Trinitate sainduan
Guciez maitatuac.

III CANTICA.

Yaincoaren legue saindua. Hainitz aireren gainean.

CANTA arin mundutarrac
Sunxi beitez betbetan ;
Sentimendu caltecorrac
Hil beitez bihotzetan.
Abia gaiten laudatzen
Erreguen erreguea,
Balxan, lehiaz, cantatzen
Eman duen leguea.

Ala bai da, Yaun goicoa,
Çure legue saindua,
Çuciz nahicarazcoa,
Goço eta yustua !
Orotarat tu hedatzen
Placeric bicienac ;
Descanxuan tu eçartzen
Penatuac direnac.

O! çuec, urguileriac
Ixutsen çaituztenac,
Munduco esdeuskeriac
Bilhatzen tutçuenac ;
Ontasunac, ohoreac
Ditutçue preçatzen,
Nic batzu, nola bertzeac
Bocic tut arbuiatzen.

Bake maite bat darraio
Yaunaren legueari ;
Cer escasten othe çaio
Hartaz dacusanari ?
Izpirituac libratzen
Ditu ilhumbetarie,
Bihotzac ere sendatzen
Çauri guciataric.

Çure legueac, Yaun ona,
Behar gaitu salbatu ;
Ez da ceren çoriona
Bertze nihon bilhatu.
Guidariric çuhurrena
Badakit hura dela ;
Hari yarraikia dena
Ez daite errebela.

Legue harren uztarria
Errech da yasaitea.
Ez, ez da nekhagarria
Harren carga maitea.
Yartzen naiz harren azpian,
Hartaz naiz guidaturen ;
Hura dut bici gucian
Bakharric maitaturen.

IV CANTICA.

MUNDUAREN ARBUIOAZ.

Hau da gure ixumendua!
Cerc gaitu bada çorätzen?
Ahantziric salbamendua,
Mundua dugu maitatzen.

Lurreco cargu, ohoreac
Dire ephe gutitaco;
Hango icaite, fagoreac
Çaizkit khearen pareco.

Arrosa, arantze gaberic
Ez ahal da nihon sorthu;
Ez eta munduco placheric
Khirexic gabe guerthatu.


Ontasun galcor batzuenzat
Ez gaitu Yaunac creatu;
Sainduki bici direnentzat
Bertzeric du aldaratu.

Cerua da dohaxutasun
Yustuari aguindua.
Oi! cer çorion, cer ontasun
Icaitea salbatua!

Bethi libro doloretaric
Daude Ceruan yustuac :
Bethi bazter gucietaric
Loriaz inguratuac.

Nonbeit ongui maitagarria
Bide çare, ô Cerua!
Çu çare, sainduen herria,
Placeren ithurburua.

O! egoitza çorionezco,
Guciz goço, berecia;
Ala çure ganat heltzeco
Ongui baidut guticia!



V CANTICA.

MUNDUCO GAUCEN ESDEUSTASUNAZ.

Aire huntan : *Itzul hadi, itzul bekhatorea.*

Mundu çoro, tromperiaz bethea,
Iduki nauc ondicoz gathetan ;
Lausengari, enganacor tristea,
Atzeman nauc, eta cembatetan !

Lore pean arantzeac gorderic,
Sar-araci nauc hire saretan ;
Hire baithan sobera fidaturic,
Errori nauc asco bekhatutan.

Non cen bada neure adimendua,
Bicitzean placer galcorretan ?
Ikhusten dut ene çoramendua,
Eta nago auhen minenetan.

Ixumendu ecin ahantzizcoa !
Salbatzecotz içan naiz creatu ;
Eguiteco gucien gainecoa
Nola bada dut trebes largatu ?

Ez balitz placheric baicen enetzat,
Tronuraino banintz althetua,
Hauc guciac ez nituzke deusentzat,
Egun batez banintz damnatua.

Ceru lurren, gucien Erreguea
Salbatzeco behar dut bilhatu ;
Guidaritzat hartu harren leguea,
Bekhatua urrikiz borratu.

Gostaia naiz çure odol garbia,
Huxtu duçu, nahiz ni salbatu ;
Çor darotçut, Yauna, bihotz gucia ;
Nahi çaitut nic ere maitatu.

VI CANTICA.

Inocentzian denaren çoriona.

ALA baida dohaxua
Inocentzian dena,
Nihoiz bere descaxua
Ecin gal deçakena!
Munduac bere placerac
Alferric tu laudatzen ;
Barneco bake harc berac
Guciac tu garhaitzen.

Yaunari bihotz garbiac
Choil ç aizco agradatzen :
Haren behatze eztiac
Tuzte bere ganatzen.
Ala bai ditu maitatzen
Notha gabe direnac !
Cerura ditu guidatzen
Hartaz dacusatenac.

Yauna bedi laudatua
Dembora gucietan,
Beregainki maitatua
Egun ederrenetan.
Çuec beraz, ô gazteac,
Emotçue Yaunari
Hastapeneco urtheac,
Yarraikiz ceruari.

Çuen adin samur hori
Laster da iragana ;
Lore flaco bat diruri
Betan sunxitzen dena :
Ikhusico dute sortzen
Eta, guehienean,
Arras historic erortzen
Egun hartan berean.

Çuec, hor çabiltzatenac
Munduari yosiac,
Bekhatuari emanac,
Iduri nahasiac ;
Nihon placer funxezcoric
Ez duçue causitzen,
Nihon ez baida bakeric
Inocentzian baicen.

Cer du bada bekhatuac,
Cer du maitagarriric ?
Haren gathetan sarthuac
Non duke soseguric ?
Helas ! bici da lurean
Barneco tormentetan,
Eta da, hiltzen denean,
Erretzen su lametan.

Maria, Biryina saindu,
Bethi garbi çarena;
Munduan duçu higuindu
Bekhaturic chumeena :

Çuc, othoi, gaitzatçu lagun
Higuintzeco gaizkia ;
Eguiçu maita deçagun
Yainco maitagarria.

VII CANTICA.

Bathaioco graciaren gainean.

Ez dakit cergatic,
Belurrac harturic,
Cere nauen hula herxtu ;
Yauna dut nerekin
Bere graciekin,
Eta nago, eta nago, eta nago
muthu.

Mendieç, içarrec,
Eta ixas bazterrec
Ez dute ichiltzeric ;
Haren ohoratzen,
Lehiaz laudatzen,
Hari dire, hari dire, hari dire
bocic.

Nic gucietarie,
Eta guehienic
Dudalaric cer mintza,
Haren laudatzeco
Eta ohoratzeco
Betan dohat, betan dohat,
betan dohat hitza.

Haren fagoreec,
Dohain bereciec
Ez dute mugarriric :

Heien preçatzeco,
Aski eçagutzeco
Ez da bera, ez da bera, ez da
bera baicic.

Cembat gaitzetarie
Eta irriscutaric
Ez nau ni harc beiratu ?
Miletan ninteken,
Biciric banuen
Yakin gabe, yakin gabe, ya-
kin gabe, galdu.

Sorthu beçain sarri,
Içan nau urricari
Eta nau fagoratu.
Harc nau, ordu hartan,
Bere besoetan
Bathaiogan, bathaiogan, ba-
thaiogan hartu.

Içarrac ceruan,
Bere ederrenean,
Ahalcatuco ciren
Niri behatzeaz,
Eta ikhuzteaz
Cein ederra, cein ederra,

cein ederra nintzen.
 Yesusen biciaz,
 Haren yusticiaz
 Nuen icarniatzen :
 Ceruez gorago,
 Ainguerutaraino
 Ikhusia, ikhusia, ikhusia nintzen.

Hambat bertzetaric
 Balxan sorthutaric
 Yaunac ni nau bereci !
 Ene creatzea,
 Ene erostea
 Ez citzaion, ez citzaion, ez
 citzaion aski.

Patutan ordutic
 Enekin sarthuric,
 Citzaitan obligatu ;

Guerocotz graciez
 Bere arraiciez,
 Çautan eman, çautan eman,
 çautan eman escu.

Bainan adinerat
 Eta eçagutzarat
 Ethorri beçain sarri,
 Nic, ene aguintzac,
 Ene hitz emanac,
 Darozkitçut, darozkitçut, da-
 rozkitçut hauxi.

Bai eiki, ene Yauna,
 Nic bekhoki hura
 Haurretic icatu dut ;
 Ikhusen nauçula,
 Oihuz çauçkidala,
 Nic çu utzi, nic çu utzi, nic
 çu utzi çaitut.

VIII CANTICA.

Yaincoa ganat itzultzen da bekhatorea.

ÇURE gana, Yauna,
 Ene yabe ona,
 Itzultzen naiz bihotzez ;
 Çu gabe, lurrean,
 Bethi gaizkipean,
 Ibili naiz, ibili naiz, ibili naiz
 trebes.

Iragan bicia
 Bekhatuz gucia
 Bethea ikhusen dut ;
 Hetaz ixuturic,

Bidetie ilkhiric,
 Nic çu galdu, nic çu galdu,
 nic çu galdu çaitut.

Gaichtoki munduac
 Gueçurrez hantuac
 Atchiki nau yosiric ;
 Harren sinhexteaz,
 Hari obeditzeaz,
 Ez dut segur, ez dut segur,
 ez dut segur onic.

Elhurraren pare,
Nairraioric gabe
Nuelaric arima;
Lepra hux eguinic,
Ezcaldaz betheric,
Ez dut norat, ez dut norat, ez
dut norat beha.

Ah! mundu tristea,
Hau duc ondorea
Emaiten dautacana!
Hire golardoa,
Bethi orhoitzecoa,
Seculaco, seculaco, seculaco
pena.

Axeguin banoac,
Ohore falxoac,
Çohazte ene ganic;
Non ez dudan Yauna,
Ene ontasuna,
Ez çarete, ez çarete, ez çarete
deusic.

Ene beguietan,
Oren gucietan,
Hemen çaituztet bethi;
Ene enganatzea,
Nitaz nausitza
Ez çaitçue, ez çaitçue, ez
çaitçue aski.

Ene hiragarri,
Eta akhabagarri,
Ez duçue pausuric
Non ni ez nauçuen,

Bethicotz ikhusten
Ifernuan, ifernuan, ifernuan
hilic.

Ah! dohacabeac,
Ene galtzaileac,
Orhoituco nauc ongui
Çuen escuetan,
Çuen gatheetan
Egoiteaz, egoiteaz, egoiteaz
finki.

Nic orai artean,
Ene bicitzean,
Cer bidegabe ez dut;
Arguiac, graciac,
Demborac, guciac
Betan galdu, betan galdu, be-
tan galdu ditut.

Deusere hetaric,
Obra onetaric
Loriacotz ez duket,
Othoitzac, amoinac,
Iragan onguiac
Bethi alfer, bethi alfer, bethi
alfer tuzket.

Yaunac non ez nauen
Urricari içaiten,
Agueri da garbiki
Cein dohacabea
Ene bicitzea
Içanen den, içanen den, içanen
den bethi.

IX CANTICA.

Yaincoaren hamar manamenduac.

Asco aireren gainean.

I. Yainco bat adora çaçû, etc.

YAINCO yauna behar duçu bakharric adoratu,
Gauça gucien gainetic hura bera maitatu ;
Hura da gure Yabea gure Creatzailea,
Salbatzeco behar diren gracien emailea.

II. Yuramenturiç ez duçu eguinen , etc.

Yaunaren icen saindua bedi ohoratua,
Errespetu handirekin ikharan aiphatua ;
Borthizki tu gastigatzen saindutasuna denac
Arinki yuramentuac eguiten dituztenac.

III. Igandeac beguira çatçu, etc.

Igandeac behar dire arthoski beguiratu ;
Beretzat ditu Yaincoac bethitic aldaratu ;
Egun hec iragan beitez haren lorificatzen,
Sainduki gure bihotzac haren ganat altchatzen.

IV. Aita , ama ohora çatçu, etc.

Yaincoaren nahia da burhasoac detzagun
Ekhar errespeturekin, behar ordutan lagun.
Oi ! cer bihotz gogortasun hec ez ohoratzea,
Hambat çor diotegunac ez cinez maitatzea !

V. Nihor obraz hilen ez duçu, etc.

Ez duçun nihoiz herraric lagunaren alderat ;
Bethi çaren ekharria exaien onhexterat.
Gaizki guciac, cin cinez, behar tutçu barkhatu ;
Elkhar, haurride beçala, behar dugu maitatu.

— 19 —

VI. Paillardica eguinen ez duçu, etc.

Axeguin lohi guciac urrun çatçu çu ganic ;
Maita çaçu modestia bihotzez orai danic.
Oi ! cembat arima gaicho diren bethicotz galtzen,
Berthute maitagarri hau ceren duten colpatzen.

VII. Bertzerena ebaxico ez duçu, etc.

Lagunaren ontasunaz ez çare yabetuco ;
Nori berea dioçu çucenki bihurtuco ;
Bertzela, exi eçaçu arima salbatzeaz,
Mundu huntaric lekhora, ceruaz goçatzeaz.

VIII. Lekhucotasunic ez duçu eguinen falxoki.

Behar çare lehiatu eguiaz mintzatzera,
Lekhucotasun falxotan nihoiz ez erortzera ;
Eguia bera den Yaunac horrela du aditzen ;
Egun batez, yakinen du gueçurraren punitzen.

IX. Bertzeren esposic, etc.

Amodio contracoric ez duçun bihotzean ;
Ez duçu behar maitatu baicic Yainco leguean ;
Ohora eta beguira çaçu garbitasuna,
Berthute bake goço bat emanen darotçuna.

X. Guticia içanen ez duçu, etc.

Ez çaizco behar bekhaiztu bertzen ontasunari ;
Ez ekhar inbidiaric lagunaren onari ;
Guti baduçu, gutiaz çare contentaturen ,
Eta diotçu Yaunari eskerrac bihurturen.



X CANTICA.

Elicaren manamenduac.

I. Meça saindua entzun çacu, etc.

IGANDETAN hurbil çaita meçaren entzutera,
Sacramendu handi hartan Yesus adoratzerà ;
Sainduen bestac orobat tutçu beguiratuco ;
Heien exemplu ederrez çare progotchatuco.

II. Bekhatuac cofesa çatçu, etc.

Urthean bederen behin çare cofesatuco,
Çure bekhatu guciac ditutçu aithortuco.
Öi ! ez gueldi behin hartan ; ithurri sacatura
Çohaci guehiagotan, bihotza garbitzera.

III. Bascoz bederen gorphutz saindua, etc.

Amodio kharxu batez çarelaric bethea,
Errecibituren duçu çure Yesus maitea ;
Bederen urthean behin, Bazcoco egunetan,
Duçu comuniatuco çure çorionetan.

IV. Gartha, biyiliac, etc.

Eguinen tutçu barurac gartha, biyilietan,
Orobat garicumaco egun seinalatutan.
Behar tutçu mundu huntan bekhatuac borratu ;
Penitentziaren bidez behar çare salbatu.

V. Ortzilarean yanen ez duçu, etc.

Ez da yanen haraguiric edocein egunetan,
Hala nola, ortzilare eta larumbatetan.
Premia gabe manu hau hauxteco ausartzia
Da Yaunaren beguietan gaizki punigarria.

XI CANTICA.

Yaincoaren eta lagunaren alderaco amodioa.

YAUNA, eguin çare guiçon
Amodioac garhaituric ;
Eta guc mereci gaberíc,
Bethi çare guretzat on.
Ene bihotza da bozten
Ceren ongui gaitutçun lehenic
Maitatu, Çerutic lurrera yauxiric.
Orai nic, ordainez, cinez çaitut maitatzen.

Ha! cer ona! cer placera
Çuri yarraikitzea bethi !
Çure gatic nahi dut bici ,
Çu çare, çu ene desira.
Norc ez çaitu behar maitatu ?
Bihotz onez maite çaituenac
Ya goçatzen ditu eguiazco onac.
Yauna, çu maitatuz behar gare salbatu.

Çure bethi maitatzean
Dago sainduen çoriona ;
Placeretan den handiena
Dago çu cerbitzatzean.
Amodio sacratu batez
Eguin nahi dautçut gorthea.
Cer daite ceruan dohaxu içaitea ?
Deus ere, baicic çu maitatzea cinez.

Bai, ene ahal guciac,
Yauna, darozkitçut escaintzen.
Çure ganat nau erakhartzen
Ene amodio handiac.
Gaitutçunaz gueroz manatzen
Maitatzerat proximo laguna,

Ez deçaçuke ongui baicic mana ;
Orai beretic dut bihotz onez maitatzen.

Anaia dudan beçala,
Arraiki diot behatuco ;
Bethi diot eracuxico
Eguiaz maite dudala.
Bainan, nola gure ahaletan
Ez bai gare flakecia baicic ;
Çu gabe ez baidugu deusentzat indarric :
Khondaturen dugu, Yauna, çure aguintzetan.

XII. CANTICA.

Lau azken finen gainean.

Ah! guiçona, bici haiz ixutua ;
Urruntzen haiz Yaunaren leguetic ;
Azken finac, uztecotz bekhatua,
Galdu behar ez dituc gogotic.

Hil behar haiz ; cer duc seguragoric ?
Hori dioc çor herioari ;
Ethorrico çaic, hic ustecaberic ;
Emoc hori hire buruari.

Içanen haiz, hil eta, yuiatua
Yainco Yaunaz ; ordean yustuki.
Cer çorigaitz, ez baduc bekhatua
Higuinduric, largatu osoki !

Berehala yuie mendecariac
Çabalduren dic suzco lecea :
Han beharco tuc tormenta guciac
Bethi yasan, ô çorte dorphea !

Hala hala, sainduki bicitzerat,
Yaungoicoac hau saristatuco ;

Helduren haiz haren escuin alderat :
Ceruaz haiz bethi goçatuco.

Hil, yuiatu, galdu edo salbatu
Beharco haiz, eguia tritea !
Hire ona nahi baduc aurkhitu,
Bilha eçac hire Yaun maitea.

Bere besoac darozkic çabaltzen :
Aita bat duc, norc erran cein ona?
Has hadi bihotzez haren maitatzen ;
Hori duc harc galdetzen duena.

XIII CANTICA.

GAUÇA BERAZ.

Guïçona, non duc çuhurtzia ?
Cer! ez dakic
Ez dela deusere bicia
Khe bat baicic?
Higuintçac bihotzez mundua
Örai danic ;
Herioa duc hurbildua
Hire ganic.
Mundutar, placer çoratutan
Hondatua,
Gauça bat bedi hire baithan
Fincatua ;
Orhoit hadi hil behar dela
Azkenean ;
Bihar beretic haitekela
Lur barnean.

Aberaxa, hire diruac
Hauc ixutzen,
Aguintza falxoez munduac
Hau çoratzen.
Ah! has hadi enganioaz
Ahalcatcen,
Bai eta funxki herioaz
Beldur hartzen.
Gazte çoro, ocupatua
Aphainduraz,
Ocupa çac izpiritua
Sepulturaz
Herioa banitateaz
Duc trufatzen ;
Urguilusen atzementaz
Duc dostatzen.

Tratulari, intres gosea,
 Deusec ere
 Mundu huntan ecin asean
 Behinere,
 Sarri phutzu bac çaic emanen
 Egoitzatzat ;
 Bi braça lur dituc içanen
 Ontasuntzat.
 Laboraria, alferretan
 Haiz nekhatzen ;
 Maiz herioa duc bet betan
 Gu ganatzen.
 Hacılan eguıteco lanac
 Tuc hiretzat,
 Eta fruitu heldu direnac
 Primuentzat.

Marinel, hambat hersturetan
 Habilhana,
 Laster haiteke uhinetan
 Atzemana :
 Ur pean edo leihorrean
 Haiz galduco ;
 Bicia çaic, muga denean,
 Escastuco.
 Bat ez çαιο herioari
 Itzurico ;
 Çorrozkı dio bakhotchari
 Yaçarrico ;
 Badaramatza Erregueac
 Tronutaric,
 Hain errechki nola pobreac
 Çokhotaric.

XIV CANTICA.

GAUÇA BERAZ.

CER dire gure egunac? Cer da gure bicia?
 Itzalaren pare dire : non dugu çuhurtzia
 Axeguin iragancorrei bihotza largatzeaz?
 Akhabo da laster gutaz; orhoit gaiten hiltzeaz.

Hobira gare hurbiltzen, sortzen garen ordutic;
 Herioac, gure bortcha garamatza mundutic;
 Baratzetaco loreac histen diren beçala,
 Hola da gure bicia sunxiten berehala.

Oi! ez dugu ceren erran gazte, sendo garela,
 Herioa gure ganic oraino urrun dela.
 Sarri lur barnean daite bici uste duena;
 Norc daki noiz içanen den gure azken orena?

Herioac nihorc ez du munduan urricari ;
Bakhotchari nahi dio, bere mugan, yaçarri ;
Chumeac eta handiac ditu bere-ganatçen,
Guciac, arte laburrez, herrauxetan eçartzen.

Cerentzat guintuzke beraz munduco fagoreac ?
Lazter utzi behar diren ontasun, ohoreac ?
Arbuia deçagun lurra, eta bilha cerua ;
Han du bakharric aurkhitzen bihotzac desc anxua.

Sainduki hil nahi denac, loriarat heltzeco,
Utzi behar du gaizkia, onguiari lotzeco ;
Hori bera du manatzen Yaun onaren legueac,
Lurreco printze, monarca gucien Erregueac.

Yaincotiarrac ez ditu hil beldurrac loxatzen ;
Badakite, hil orduco, direla ceruratzen ;
Cembat ere herioac beguia baitu larri,
Ongui bici direnentzat ez da ikharagarri.

Cer çorte erdiragarri bekhatuan hiltzea !
Cer çorigaitz ! cer calte min arimaren galtzea !
Beguira gaitzatçu, Yauna, heriotze gaichtotic,
Eternitate gucian erretzen egoitetic.

Yainco adoragarria, Aitaric hoberena,
Entzun çachu çure Seme, gure gatic hil dena ;
Gracia eske dagotçu guretzat gurutzean :
Arren fagora gaitzatçu gure heriotzean.

Ondicoz ! mereci tugu gastigu garratzenac.
Othoi, ahantz bekizkitçu, Yauna, gure hobenac.
Hel çakizkigu, Biryina, gure behar ordutan,
Guciz, ô ! Ama maitea, hiltzeco orenetan.



XV CANTICA.

HERIOTZEAREN ORHOITZAPENAZ.

ÇUEN heriotzeaz funxki orhoitzerat,
Lehia cintezkete ongui bicitzerat;
Muga lazgarri hura datza hurbildua;
Halaric ez duçue higuintzen mundua.

Placerac, ontasunaç futçue maitatzen,
Çuen gogo gucia hetan da baratzen;
Hec utziric bertzeentzat, gutien ustean,
Aurkhituren çarete lurraren barnean.

Ethorri beçain sarri hiltzeco orena,
Oren sainduac berac lazten dituena,
Yuie ikharagarri, ordean yustuac
Nahico tu punitu çuen bekhatuac.

Ez da ceren orduan laguntza bilhatu,
Hauço, ahaidetarat oihuz abiatu;
Ez du nihorc içanen urricalmenduric,
Ez çaitçue emanen conxolamenduric.

Exitu beharco da ceruco graziez,
Baita mundu huntaco fagore guciez;
Çuen barkhamendua, nigar marrasketan,
Galdeguinen duçue, bainan alferretan.

Çuen obra guciac dire aguertuco,
Balentza çucenetan dire phisatuco :
Onguiac içanen du saritzat cerua,
Gaizkiac gastigutzat Ifernuco sua.

Batbedera, balimba, nahi da salbatu,
Saindu, Saindac beçala loriaz goçatu :
Heien corionerat heltzeco bidea
Da bakharric Yaun ona cinez maitatzea.

Deçagun beraz maita sainduen Saindua,
Eta higuin bihotzez bethicotz mundua.
Oi! ez bekigu ahantz hil behar garela,
Ceruco erresuma yustuentzat dela.

XVI CANTICA.

Gurutzearen bistan bekhatorearen sentimenduac.

O Yesus! gurutzera
Ni gatic igan çarena,
Ene gastigatzera
Maiz behartzen çaitudana,
Orai, çure aldera
Bihurtzen naiz, Yainco ona;
Ah! orhoit çaita odola
Enetzat eman duçula.

Çure amodioac
Ez banau, Yauna, salbatzen,
Ene bihotz gaichtoac
Sutara nau condenatzen :
Çure yuiamenduac
Borthitzki nau ikharatzen.
Ah! orhoit çaita odola.
Enetzat, etc.

Behar nuen bicia
Eman Creatzaileari;
Eman diot gucia
Gaichtoki creaturari.

Ixumendu handia!
Ifernua dut mereci.
Ah! orhoit çaita odola
Enetzat, etc.

Deithu nauçu eztiki
Çure gracia sainduaz;
Egotu naiz laçoki,
Enganatua munduaz;
Orai, yoanen naiz bethi
Onguian aitzinatuz.
Ah! orhoit çaita odola
Enetzat, etc.

Sobera tut maitatu
Munduco erhokeriac;
Berant tut eçagutu
Haren traidorekeriac.
Nahi naiz conbertitu.
Indatçu çure gracia.
Ah! orhoit çaita odola.
Enetzat, etc.

Hambat duçu pairatu
Ene gatic gurutzean !
Nola tuzket maitatu
Axeguinac mundu pean.

Nahi naiz gambiatu ;
Urriki dut bihotzean.
Ah! orhoit çaita odola
Enetzat eman duçula.

XVII CANTICA.

Nola behar gaizcon Yesusi yarraiki.

Oi! cein diren dohaxuac
Bekhatutic urrunduac,
Berthutez berreguinduac
Bici direnac !
Salbatzea gatic,
Jesus bihotzetic,
Gucien gainetic,
Maite dutenac.

Non causi humiltasuna,
Non aldiz eztitasuna
Eta amulxutasuna ?
Bihotz gutitan.
Berthute goçoac,
Dohain cerucoac,
Çareten gureac
Ùrhax orotan.

Oi! nonda caritatea,
Non eguiazco fedea,
Khar fidantziaz bethea?
Urrun gu ganic.
Fedear bicitzen,
Onguian fincatzen
Gare abiatzen,
Yauna, gaur danic.

Cer du arima kharxuac,
Bere Yaincoaz hartuac,
Munduaz desgustatuac,
Cer du eguiten ?
Atzartasunari,
Othoitz husuari,
Mahain sainduari
Da yarraikitzen.

Cer erran garbitasunaz,
Hambat maitatu duçunaz,
Hain guti maitatzen denaz
Dembora hautan?
Berthute maitea,
Biryinen lorea!
Biz bethi gurea
Mendeen mendetan.

Cer da berriz maitatzeco,
Bereciki bilhatzeco,
Guciec besarcatzeco ?
Unionea.
Elkharri behatuz,
Gaizkia barkhatuz,
Exaiac maitatuz,
Dugun bakea.

O ! Yesus, ezti çarena,
Escolariç çuhurrena
Emaiten darocuçuna,
Ikhas deçagun.
Gaizkitic urruntzen,
Çu ganat hurbiltzen,
Çuri yarraikitzen
Gaitzatçu lagun.

Oi ! cein den çorte tritea
Munduari behatzea,
Hango placheren hartzea
Dut eçagutzen.
Bakharric çu, Yauna,
Ene çoriona
Galdetzen duçuna,
Çaitut maitatzen.

XVIII CANTICA.

CONTZIENTZIAREN EXAMINA.

Humilki çaitut adoratzen,
Ahuspez çure oinetan ;
Yauna, çuc nauçu fagoratzen
Behar ordu gucietan.

Orai eguidaçu gracia
Bihotzaren çundatzeco ;
Han den phoçoin gaichto gucia
Lehen bai lehen khentzeco.

Ikhus detzadan ene faltac
Othoizten çaitut, Yaincoa ;
Eta heien ikhuste clarac
Trista bieçat gogoa.

Hurbildic examinatzerat
Eguin ditudan gaizkiac,
Milaca çaizkit aitzinerat
Heldu neure flakeciac.

Gogoz, obraz, orobat hitzez
Hauxi tut çure manuac ;
Itchurazco bere placerez
Enganatu nau munduac.

— 30 —

Oi! urrical nakiçu, Yauna,
Higuintzen dut bekhatua,
Bakharric ceren çaren ona,
Ez ceren den Ifernua.

Leialki dut beguiratuco
Orotan çure leguea;
Ez naiz handic aldaratuco;
Hori da neure chedea.

Cembat diren urricaltzeco
Gaizkian oi! daudecenac!
Heientzat daude seculaco
Tormenta latzgarrienac.

Cer çuhurtzia orhoitzea
Ifernuco suzco kharrez!
Ceruaren merecitzea
Urrikiaren nigarrez!

XIX CANTICA.

BEKHATUAREN URRIKIAZ.

Çure contra naiz altchatu,
Çeru lurren Nausia;
Çure contra naiz harmatu;
Hau da atrebentzia!
Oi! nola, oi! nola
Mundu huntan conxola?

Galdut dut inocentzia,
Orhoitzeco caltea!
Harekin bake gucia;
Hau da neure çorthea!
Oi! nola, etc.

Bathaioac Yaincoari
Ninduen conxecratu;

Bainan laster exaiari
Bekhatuac libratu.
Oi! nola, etc.

Nintzeneco bathaiatu,
Oren hartan berean
Ah! ochala banintz sarthu
Hil gogorra lur-pean!
Oi! nola, etc.

Aldarearen oinetan
Eguin tudan botuac
Ene hobenez, miletan,
Dire osticatuac.
Oi! nola, etc.

Cer ez duçu, çuc, enetzat
Eguin, Yesus maitea !
Noiz içanen naiz çuretzat
Eçagutzaz bethea?
Oi ! nola, etc.

Tresor guciz berecia
Ez dut aski preçatu :
Yauna, dut çure gracia
Ondicoz ! arbuiatu.
Oi ! nola, etc.

Damuz, urrikiz çaurtua,
Heldu naiz çure gana :
Içan bedi borratua

Bicitze iragana.
Yaun onà, Yaun ona,
Ah ! ez ni abandona.

Ene arima gaichoaz
Duçun urricalmendu :
Ene bicitze gaichtoaz
Oi ! othoi, barkhamendu.
Yaun ona, etc.

Cin cinez naiz gambiatzen,
Bai, memento beretic :
Çuretzat naiz declaratzen
Bihotzaren erditic.
Yaun ona, etc.

XX CANTICA.

Yaincoac deithzen du bekhatorea bere gana.

ITZUL hadi, itzul, bekhatorea,
Yainco Yaunac deitzen hau arraiki,
Estima çac hitaz duen galdea,
Eta emoc bihotza osoki.

Bethiere, hire hux gucietan,
Eguin dauiat pietatez oi hu ;
Ene gana deithu haut hambatetan ;
Bainan hago gogor eta muthu.

Cer da, errac, nic eguin ezdudanic
Hi gaizkitic guibelarazteco ?
Hambat argui içan duc ene ganic :
Hauc guciac, hi ceruratzeco.

Ceren gatic nauc bada ofensatzen ?
Naski, gucz on naicelacotz.
Hain gogorki cergatic nauc tratatzen ?
Ez nauc maite, maite haudalacotz.

Bicitze hau ez duc amex bat baicic :
Hil behar haiz eta noiz ez dakic.
Ez daroat nic aguindu gueroric,
Ez asteric, ez eta orenic.

Içanen haiz egun batez ceruan,
Edo dukec bethico çorthea
Tormentetan, supean, Ifernuan ;
Eta ez duc gogõan hiltzea !

XXI CANTICA.

Bekhatorea itzultzen da Yaincoa gana.

HUNA, Yauna, ardi bat galtzen cena,
Ez bacindu içan urricari ;
Çure ganat, ô ene Artzain ona,
Graciac du egun erakharri.

Mundu pean, ondicoz ! nintzen galtzen.
Eta bici nintzen aleguera ;
Bainan non da, oi ! Yauna, çutan baicen
Eguiazco bihotzen placera ?

Ikhusten tut ene erhokeriac ;
Hainitz aldiz çaitut ofenxatu.
Barkha çatçu ene hoben guciac ;
Urrikiaz nahi tut borratu.

Hirritatu dut maiz çure colera,
Çure contra altchatzen nintzela.
Nola atrebi çu ene Aita deithzera,
Erraitera çure ume naicela ?

Helas ! Yainco guciz ona çarena,
Berant çaitut, berant eçagutu ;
Berant çaitut, gauça gucien Yauna,
Mundu huntan eguiaz maitatu.

Çure ganic ez penec, ez placerec
Ni ez naute nihoiz urrunduren ;
Ez hiltzeco herstura handienec
Çu laudatzetic guibelaturen.

XXII CANTICA.

Bekhatorea nahi da combertitu.

OTHE da deus necesario denic
Mundu huntan baicen salbatzea ?
Ez ahal da halaco çorionic
Nola ceruetara heltzea.

Mintza çaute, Yaun ona, hemen nago
Ekharria çure entzutera :
Çure nahiac tut complitu gogo ,
Othoi, çato ene borthiztera.

Uzten ditut guçiac çure gatic ,
Ecin duket çu gabe placheric ;
Amodioz çabiltza sustaturic
Ene bilha, cerutic yauxiric.

Urrun beraz ene ganic mundua,
Ez, ez natzaic nihoiz yarraikico ;
Eguin diat orai ene hautua,
Yainco Yauna bethi maitatzeco.

Gurutzeac, aithortzen dut, tudala,
Ene faltaz orai merecitzen ;
Bainan guero badakit ditueia
Penatuac Yaunac khorootzen.

Ikhusten dut cerua çabaldua;
 Han behar naiz, egun batez, sarthu.
 Largatzen dut bihotz onez mundua;
 Baitezpada nahi naiz salbatu.

Erre bekit bihotza çure suaz;
 Ah! indaçu çure sokhorria;
 Arnegatzen dut, Yaun ona, munduaz,
 Içaiteco ceruco loria.

XXIII CANTICA.

BEKHATOREA CONBERTITZEN DA.

ALA ni bainaiz dohacabea.	5
Yaincoaren ofenxatzeaz;	4 $\frac{1}{2}$
Sathan guidari hartzeaz,	4
Ene çorthearen tristeia!	4 $\frac{1}{2}$
Sathan guidari hartzeaz!	4 $\frac{1}{2}$
Guisa hortan cerua galtzeaz!	5

Ez dut ez galdu choiki cerua,	5
Eta Ifernua merechitu;	5
Neure Yaincoa dut galdu,	6
Neure salbatzaile amulxua.	5
Neure Yaincoa dut galdu,	4
Haren contra naicenean altchatu.	5 $\frac{1}{2}$

Orai dut, orai, eçagutzen	6 $\frac{1}{2}$
Ene gaizkien malecia;	4 $\frac{1}{2}$
O! Yainco maitagarria,	4 $\frac{1}{2}$
Guciac orai tut higuintzen	4 $\frac{1}{2}$
O! Yainco maitagarria,	4
Bihotzetic indaçu urrikia.	5 $\frac{1}{2}$

Orai, Yauna, norc emanen dauzco ♪
 Ene adimenduari indarrac, ♪ $\frac{1}{2}$
 Ene beguier nigarrac,
 Ene bihotzari khar asco, ♪ $\frac{1}{2}$
 Ene beguier nigarrac ? ♪ $\frac{1}{2}$
 Hor litezke, hor, ene placêrac. ♪

Cer duçu niganic igurikitzen ? ♪ $\frac{1}{2}$
 Cer guelditzen çaut eguiteco ? ♪ $\frac{1}{2}$
 Ekharria naiz aurkhitzen
 Cer nahi den pairatzerat ;
 Ekharria naiz aurkhitzen,
 Hedatzeco guero loriarat. ♪

Ez çaitut berriz ofenxatuco ♪
 Seculan, ô ! Yainco maitea ; ♪ $\frac{1}{2}$
 Miletan lehen hiltzea,
 Bethi çu çaitut maitatuco ; ♪ $\frac{1}{2}$
 Miletan lehen hiltzea,
 Ecenez çu berriz galtzea. ♪ $\frac{1}{2}$

XXIV CANTICA.

*Yesusen amodioaz eta ikhusninez sustatua den
 bihotzaren haxgorapenac.*

AZKENECOTZ çure gana, Yesus, ene bicia
 Amodioac dakharke ene bihots gucia ;
 Ez dut nihon soseguric, çu goçatu beharrez ;
 Ene baitharic banoha, çu maitatu placerez.
 Othoi bada, ez hiltzeco, Yesus, ene bicia,
 Çu bethi maita çaitzadan eguidaçu gracia.

Ez dacusat oren hura, ene ganic ilkhiric.
 Çurekin batnaçakena, gorphutzaz gabeturic :
 Ene desirac balute çure besoen ahala,
 Hegaldaca nindohake çu gana berehala.
 Othoi, bada..... berriz.

Hil beldurrac guehienac hiltzeraino dakharzke,
 Eta ni nahia ere ecin hil-araz neçake;
 Hekien beldur gucia da gal deçaten bicia,
 Eta ni, bici beharrez, nabila hil nahia.
 Othoi, bada, etc.

Hilic baicen ecin bici, hauda bada corthea!
 Eta oraino bici behar bortchaz, ô dolorea!
 Ecin hilac ene baithan ala baidu luçatzen!
 O! heriotze maitea, cerc hauc horla berantzen!
 Othoi, bada, etc.

Amodioac ez badu ene baithan indarric,
 Doloreari emoçu eguin deçan bakharric;
 Ene ganic çure gana nathorrentzat çucenki,
 Ene haxaz gabeturic, çurekin nadin bici.
 Othoi, bada, etc.

Ene arima gorphutz hunec gathibu daducala!
 Çurekin bat içaitetic ni guibela neçala!
 Ez, ez da ceren; nolazpait nic çurekin behar dut;
 Hunekin edo bertzela, nic çu beharco çaitut.
 Othoi, bada, etc.

Bere urhaxa ez darama erbi perxeguituac,
 Hain laster chirripetarat orkhaitz egarrituac,
 Nolai orai sustaturic ceruco khar biciac,
 Bainarama mundu petic çu ganaco lehiac,
 Othoi, bada, ez hiltzeco, Yesus, ene bicia,
 Çu bethi maita çaitzadan eguidaçu gracia.

XXV CANTICA.

BEKHATOREAREN BOZCARIOA YAINCOA GANAT BIHURTZEAN.

Utziz gueroz bekhatua,	Oi! hau da alegrantzia!
Bertze bat naiz aurkhitzen;	Bakeric goçoenac
Ene barnea boztua	Bethe daut bihotz gucia,
Bet-betan dut sentitzen.	Khenduric hango penac!

Soseguaz gabetua,
Nahasi bat beçala
Bici nintzen çoratusa,
Nerorrec dakit nola.
Cembatenaz placeretan
Bainintzen phulumpatzen,
Hambatenaz arantzetan
Barnago nintzen sartzen.

Maiz ene barneco penex
Nintzen tormentatua,
Halaber ene hobenez
Arras ahalcatua.
Ber bihotzmin ! cer borroca !
Cer ez nuen pairatzen,
Nahi guciez ithoca
Nintzenean goçatzen !

Iragan enganioa
Egun dut condenatzen ;
Munduan bozcarioa
Nuen bada bilhatzen !

Axecabez hiratua ,
Bihotza grina pean ,
Egon naiz asaldata
Gambiatu artean.

Phorroscatu beçain sarri
Exaiaren gatheac,
Çoriona daut ekharri
Berekin berthuteac,
Descanxuz gaindi eguina,
Bici naiz lorietan ;
Oi ! nolaco axeguina
Den orai ene baithan !

Içan bedi cantatua
Yaunaren ontasuna,
Gucietan laudatua
Haren çusentasuna.
Aski da conbertitzea,
Harekin baketzeco,
Haren gana bihurtzea,
Dohaxu bicitzeco.

XXVI CANTICA.

*Creaturen conxideracionea gure bihotzac Yaincoa
ganat altchatzeco.*

CHORIAN, çuen oihanetan,
Lauda eçaçue Yauna ;
Aipha haren ontasuna
Inguru gucietan.

Ez bedi entzun bazterretan
Çuen musicaric baicic :
Yaun onaren ohoretan
Ez bara cantatzetic.

Arditchoac, bazca çaitetze ;
Ez dut çuen çoriona :
Goiz arrax, hari çarete
Laudatzen Artzain ona.

Çuec, haice maitagarriac,
Harraboxic eztienez,
Munduan eguin ahalez,
Emotçue graciaç.

Phausuric gabe, ixasoa
Orroaz borthizki dago ;
Bainan ez du gutiago
Ohoratzen Yaincoa.

Ni baino leialago çare,
Urço tortoila gaichoa :
Laudatzen duçu Yaincoa
Egun oroz, çuc ere.

Nic behar nuen guehienic
Yainco Yauna ohoratu ;
Eta ni naiz gutienic,
Hartarat lehiatu.

Ez naiz oraino abiatu
Yaun goicoaren maitatzen ,

Eta haren ofensatzen
Urtheac tut pasatu.

Ordu dut, ordu ilkhitzeco
Exaiaren gathetarie,
Bide onean sartzeco,
Bekhatuac utzirie.

Huna beraz non heldu naicen
Yauna, urrikiz betheric ;
Seculan ez dut çu baicen
Maitaturen bertzeric.

Badakit hobendun naicela :
Merechi dut hainitz pena ;
Orhoit çaute çu çarela
Aitaric hoberena.

XXVII CANTICA.

ESKERREN BIHURTZECO.

Deçagun canta gogotic ;
Gaiten guciac bozcaria ;
Gure salbatzea gatic,
Jesus, eman duçu bicia.
Bai, bihotzaren erditic
Deçagun canta gogotic.

Deçagun canta gogotic :
Çure odol preciatua
Ichuri duçu gu gatic ;
Çaren, ô Jesus ! laudatua.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic ;
Nahiz arimac ceruratu,
Lece beltz ifernucotic,
Jesus, gaitutçu beguiratu.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic :
Jesus dela lorificatu :
Harc gaitu egundainotic
Amodio phuruz maitatu.
Bai, bihotzaren erditic.
Deçagun canta gogotic.

Deçagun canta gogotic :
O Yesus, çure ohoretan,
Boçac errepicatzetic
Ez beitez bara bazterretan.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic :
Oi! hau da gure çoriona,
Yesusec, ceru goratic
Galdetzen gaitu beregana.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic :
Deiha Yesus maitearenac
Behartu, orai beretic,
Gure eskerric handienac.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic :
Bethi çaitugu ladatuco;
Gauça gucien gainetic,
Yesus, çaitugu maitatuco.
Bai, bihotzaren erditic,
Deçagun canta gogotic.

XXVIII CANTICA.

ALDARECO SACRAMENDU SAINDUAREN GAINEAN.

Oi! miracuilu guciz espantagarria!
Oguiaren iduriz Yesus estalia!
Hura dut adoratzen aldare gainean;
Hura bera dut yaten comunionean.

Ene beguiec Yesus han ez dute ikhuzten,
Gorphutzeco senxuec ez dute sentitzen;
Bainan, duda gabe dut han dela sinhexten;
Fedecac arguituric, han dute eçagutzen.

Yesusec eguin çuen azken afaria,
Yanharizat emanic bere haraguia;
Haragui saindu hura yaten dut nic ere;
Hura yanic uste dut bici bethiere.

Gurutzeficaturic, eneizat hil dena,
Lorioski phizturic, cerurat igana;
Hura da sacramendu hortan eçarria;
Hura bera lurrean ene yanharia.

— 40 —

Biciaren arbola guciz aiphatua,
Baratze dohaxuan yaunac landatua,
Aurkhitzen da neuretzat comunionea;
Nic han dut edireiten ene bicitzea.

Israelec yan çuen desertuan mana,
Gustu guciac bere baithan cituena;
Yesusen gorphutza da neure yanharia,
Desertu huntan ene conxolagarria.

Yaincoaren mendirat igan cen Eliaz,
Sainduki borthizturic yan çuen oguiaz;
Yaten dut aldarecq ogui sacratua;
Hartaz nic ardiexi uste dut cerua.

Urerat du lehia orkhaitz nekhatuac,
Beroz eta ihistariz betan penatuac;
Hala dut desiratzen, Yauna, çure oguia :
Othoi, sasia çacu ene guticia.

Choriec badituzte beren ochantzeac,
Urço tortoilec ere non eman umeac;
Çure aldareten da ene iheslekhua;
Nic han dut edireiten ene sosegua.

XXIX CANTICA.

MEÇACO SACRIFICIOAREN GAINEAN.

CERUTIC yauxi çaren bictima garbia,
Çu çare sacramendu, çu çare ostia,
Arimen yanharia, sacrificioa;
Bata nola bertzea, Yesus dibinoa.

Oguia da itzultzen çure gorphutzer, a,
Arnoa gambiatzen çure odolera :
Conxecracionean han duçu obratzen;
Çure botherea da guciz han aguertzen.

Abelen ofrendac du çurea marcatu ;
Hura çuen ceruac clarki fagoratu ;
Çu Sainduago çaren ofrenda garbia,
Çu gure on gucien çure ithurria.

Abrahamec semea çuen imolatu,
Haren fedea çuen çure Aitac laudatu :
Çu çare Aita beraz guciz onhexia,
Gure esker gucien emaile handia.

Melkhisedec, erregue eta aphez handiac,
Çu seinalatzecotzat noizbait egorriac,
Ôguia eta arnoa, biac ofrituric,
Çure ofrenda çuen marcatu urrundic.

Legueco ofrendetan, chahal, bildoxetan,
Idi eta ahari, urço, cecenetan
Causi othe daiteke itzalaz bertzeric
Çuri hurbiltzecotzat deus ere gai denic?

Gurutzean beçala, gure aldaretan
Imolatua çare gure fagoretan,
Adoratzaile perfet, esker emailea,
Facegatzaile eta dohain escailea.

Manatu içan duçu azken afarian,
Gurutzean guretzat biltzeco bezperan,
Çure gorphutz garbia eta sacratua
Içan çadin aphecez bethi ofritua.

Menderen fineraino, çutaz orhoituric,
Hori eguinen dugu, kharrez sustaturic ;
Fede bici batekin gaizkitçu hurbiltzen,
Çurekin içaitea dugula galdetzen.

Çure mayestatea dugu adoratzen,
Çure icen saindua bihotzez laudatzen ;
Barkha dietzagutçu gure bekhatuac ;
Orai aurkhitzen gare urrikiz çaurthuac.

O! Yesus, aldarean enetzat emana,
Ene yanhari goço, ostia çarena,
Eman duçu bicia arimen onetan;
Oi! noiz naiz goçatuco çutaz ceruetan!

XXX CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN OHORETAN.

Oi! cer ogi dut ikhusten
Gure aldaretara
Ceru gorenetic yauxten,
Arimen bazcatzera!
Bihotz kharxua,
Amulxua,

Ene yanhari çare bilhacatzen,
Ordainez, nola çaitut maitatzen?

Yaunaren amodioa
Hemen da seinalatzen,
Oi! hau da misterioa!
Guiçona Yaincoztatzen!
Bihotz kharxua, etc.

Yainco baten sustantzia
Gurekin da balxatzen;
Hulaco alientzia
Norc du aski preçatzen?
Bihotz kharxua, etc.

Enekin bat eguita
Duçu bada bilhatzen!
Cer duçu, Yesus maitea,
Ene baithan aurkhitzen?
Bihotz kharxua, etc.

Hau da neure çoriona!
Cembat ontasun betan!
Salbatzaile guciz ona,
Cer! nic, çu ene baithan!
Bihotz kharxua, etc.

Aitetan den hoberena
Aithortzen dut çarela,
Çu maite ez çaituena
Biciric hila dela.
Bihotz kharxua, etc.

Yaun ona, çure egoitza
Ceronec çachu garbi;
Bertzela çure emaitza
Oi! nola errecibi?
Bihotz kharxua, etc.

Amodio sacratua.
Eguçu gau, egunez,
Içan nadin sustatua
Çure khar bicienez.
Bihotz kharxua,
Amulxua,
Ene yanhari çare bilhacatzen,
Ordainez, nola çaitut maitatzen?

XXXI CANTICA.

YAUN HANDIA ADORATZECO.

CER çorion!
Oi! hau da fagorea!
Ikhusten du Yesus maitea.

Cer çorion!
Horra cerutic
Yauxia nere gatic;
Cer çorion!

Sinhexten dut,
Ceruetan beçala
Aldarean orai çarela;
Sinhesten dut;

Seguratua,
Fedeaz borthiztua,
Sinhexten dut.

Bihotzetic,
Yesus, çaitut laudatzen,
Sacramenduan adoratzen
Bihotzetic.
Ah! ene Aita,
Çu nola nic ez maita
Bihotzetic?

XXXII CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN ADORATZECO.

LAUDA çagun misterio handia,
Yainco Yauna ostian estalia :
Çuec, Aingueruac, ceruco gorthea,
Adora çaçue gure Erreguea, gure Erreguea.

Yainco guizon, gure Salbatzailea,
Mundu, ceru, gucien eguilea,
Yaux çaitte cerutic gure laguntzerat,
Gure amulxuki benedicatzerat, ben... etc.

Amodio, loria imortala
Trinitate sainduac dituela :
Ohore hirurei batasun berean,
Orai eta bethi eternitatean, eter... etc.

XXXIII CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN BENEDICIONEA EMAITEAN.

YAINCO Yauna, ostia saindu huntan
Estalia guiçonon fagoretan,
Bihotz humil batez deçagun adora,
Eta eguiazki maita hura bera, maita, etc.

Yesus, guri emaiteco bicia,
Nahi duçu ičan gure oguia.
Ah! bethe gaitzatçu benedicionez,
Eta bethi lagun çure fagoreez, çure, etc.

Izpiritu dohaxu çaretenac,
Emotçue guretzat esker onac
Hambat arraçoinez çor gaizcon Yaunari,
Orai eta bethi Trinitateari, Trinitateari.

XXXIV CANTICA.

COMUNIONE SAINDURACO AMODIOZCO DEIHAC.

NAHI duçue yakin ene guticia?
Yainco onarentzat da ene min gucia?
Ene baithan nago penxatzen
Noiz ikhusico dudan ene Yaincoa;
Ecin bertzela biciz, ah! hiltzerat noha.

Hura dut bethicotzat ene bihotzean;
Hartaz landan ez duket phausuric lurrean.
Haren gana noha lasterrez,
Itchic eta phitz deçan ene gogoa;
Ecin bertzela biciz, ah! etc.

— 45 —

Ixasoan arraina peitari, lasterrez,
Ez doha hain gogotic nola ni desirez ;
Ecen badakit Yesus dela
Ene arimaren yanhari goçoa.
Ecin bertzela bicic, etc.

Haice alde untzi bat ez doha porturat
Hain laster, ez chori bat bere ohatzerat,
Nola ni yanhari hartarat,
Harentzat dudan amodioz, bainoha.
Ecin bertzela biciz, etc.

O mahain dohaxua! Yaincoa yanhari!
Haren odola bera dudala edari!
Ene bihotzac bethi berriz
Hartaco duke bere amodioa.
Ecin bertzela biciz, etc.

Lurreco yanhari, gaitza ethortzean,
Uzten dira guciac, gaitça ken artean;
Cer nahi den gaitz nic dukedan,
Yesus dut erremedio gucizcoa.
Ecin bertzela biciz, etc.

Bertze erremedioec, ona baino lehen,
Desgustuz ene gaitza darotet berretzen :
Nic heientzat desgustu beçain,
Çuc enetzat duçu gustu cerucoa.
Ecin bertzela biciz, etc.

Hec, bere desgustuaz, barnea dute hiltzen ;
Çuc, gustu goçorekin, phizten eta bozten :
Oi! bada ez çaituzket nic çu
Ene erremedio soberanoa!
Ecin bertzela biciz, etc.

Non ez nauçun ni laster, Yauna, conxolatzen,
Ene desira mina ez duçu complitzen.
Ez dakit dukedan indarra
Çuri hitz haukiekin erraitecoa :
Ecin bertzela biciz, ah ! hiltzerat noha.

XXXV CANTICA.

COMUNIONEAREN ONDOCO SANTA THERESAREN BOZCARIOZCO
ESKERRAC.

BICIRIC naiz, bainan ez, Yaincoan naiz bicia;
Orai, harc hacirican, hartan natza gucia.
Hura ceruan beharrez,
Hiltzen naiz ecin hilez. Hiltzen naiz ecin hilez.

Amodio phuru bat sārthu çait bihotzean,
Ene Yaincoarekin bat eguin naicenean ;
Ahitua haren minez,
Hiltzen naiz, etc.

Hula bici, hula iraun, ô dolore tristea!
Bicitzea da, Yauna, çu gabe bicitzea?
Bethi hunela egonez,
Hiltzen naiz, etc.

O arrasta maitea, hil nadintzat emana,
Bethico çoriona berekin dakharkena!
Ukhitua haren colpez,
Hiltzen naiz, etc.

Amodio çoróa! bici dolorezcoa!
Ciacusat bertze bat hi ez beçalaoa;
Orai harc eman indarrez,
Hiltzen naiz, etc.

Lurrean den bicia herio bat daiteke,
Ceina hiltzeac baicen ecin khen baitdeçake :
Orai ere, harc iraunez,
Hiltzen naiz, etc.